

Irabazi-iturriak




Aplikazioaren bidez lortuko ditugun irabazi-iturriak, bi modu ezberdinetan jasoko ditugu:

Lehenik eta behin, gure aplikazioaren gai antzekoak lantzen dituzten beste batzuen iragarkiak ezarriko ditugu gure aplikazioan, gure proiektuari kompetentzia egiten ez dioten bitartean. Aplikazio horien jabeek diru kopuru bat ordainduko digute iragarki horiek ezartzeagatik.

Beste alde batetik, denda ezberdinengandik diru kopuru bat jasoko dugu. Gure aplikazioan, bertako denda txikietan eta supermerkatu handiagoetan erosketak online egiteko aukera izango dute bezeroek. Ez hori bakarrik, haien iragarkiak ere ezarriko ditugu aplikazioan eta hau gertatzeko, denda edo supermerkatu hauen jabeek ordaindu egingo digute.

Denda eta supermerkatuak gure aplikazioan sartzeagatik ez dute diru kopururik ordaindu beharko, baina beraiek aplikazioari esker irabazitako salmenten %2 a gure esku geratuko da.



Irabazi-iturriak



Bistaratze bakoitzeko kostua, CPM (costo por impresión) teknikaren bidez kobratuko dugu iragarkiak jartzea, hau da, iragarkia 1000 pertsonak ikusteagatik, 2,5 € ordaindu beharko dituzte.

Horrez gain, bertako denda txikiak sustatuko ditugunez gure aplikazioaren bidez, eta gainera, gizartearen osasunean eragin onuragarria izango duenez, elikadura egokia jarraitzen lagunduko dugulako, proiektua aurrera eramateko diru laguntzak jasotzea espero dugu Eusko Jaurlaritzarengandik.

ZER DA?	ZENBAT IRABAZIKO DUGU? (€)	ZENBATERO?
Iragarkiak	40 (2,5€/ 1000 ikustaldi x 16.000 ikustaldi)	Hilabetero.
Supermerkatuak	5000 (250.000€-ren %2)	Hilabetero.
Denda txikiak	2000 (100.000€-ren %2)	Hilabetero.
Laguntza publikoak	20000	Proiektua hasteko.

URTEBETEKO
EMPRESAREN IRABAZIEN
HURBILKETA

104040 €

Irabazi iturriak handiagoak dira kostuak baino, 20250,92 €-ko ezberdintasunarekin.

- Arrosez **azpimarratu** gabeko faktoreak ez dira finkoak, hau da, hilabetero ez dute kostu bera izango; gutxi gora beherako bat da.